

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Foru Gobernuak sentsibilizazio-ekintzak eta prestakuntza sustatuko ditu gazteen artean genero-indarkeria errotik kentzeko

2012an indarkeria matxista dela-eta aurkeztutako hiru salaketatik bat emakume gazte batena zen

Viernes, 20 de septiembre de 2013

Nafarroako

Gobernuak, [Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin](#) (BJKN) elkarlanean, sentsibilizazio-ekintzak eta prestakuntza sustatuko ditu urte honen azken hiruhilekoan eta 2014an gazteen artean genero-indarkeria errotik kentzeko.


Ekimena gaur goizean [aurkeztu](#) [dute](#) Nafarroako Jauregian egindako prentsaurrekoan Teresa Nagore Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako

Institutuko zuzendari kudeatzaileak eta Esther Erice [Probintzia Auzitegiko](#) lehendakari eta [BJKNko Etxeko eta Genero Indarkeriaren aurkako Behatokiko](#) adituen taldeko kideak.

Gogorazi beharrekoa da, [emakumeen aurkako indarkeria prebenitu eta horri arreta jartzeko ekintzak modu eraginkorrean koordinatzeko instituzio arteko erabakiaren](#) urteko azken [txostenaren](#) arabea, iaz Nafarroan genero-indarkeriagatik aurkeztutako hiru salaketatik bat (% 37) emakume gazte batek aurkeztu zuela. 18 eta 24 urte artekoak ziren gehiena.

Halaber, berriki egin diren estatuko azterlanek aditzera ematen dute gazteen artean oraindik ikuspegi sexistak daudela genero-rolen inguruan. Horiek, ondorioz, indarkeria matxista eragin dezakete. "Nerabeen artean, oraindik, 'maitasunarekin guztia da posible', 'aurkako izaera dutenak erakarri egiten dira', 'benetako maitasunak guztia barkatzen du' edo 'benetan maite zaituenak negar eginaraziko dizu' bezalako iritziek harreman desorekatu batzuetan zilegi bihurtzen dute mutilek neskak kontrolatzea edo abusatzea", adierazi dute Nagorek eta Ericek

Bestalde, Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutua ere genero-indarkeriaren diagnostikoa egiten ari da Foru Komunitateko gazteen artean, indarkeria matxistaren aurkako lege-proiektu berri bat



Emakume gaztea.

egiteko.

Azterlan horren bidez epe luzerako estrategia diseinatu ahal izango da indarkeriari aurre egin eta gazteen arteko berdintasuna sustatzeko. Orduan, ekintzak errepikatu, zabaldu edo aldatuko dira. Baina orain ekintza horiek sustatzen ari dira "sentsibilizazio-ekimenak eta prestakuntza berehala gauzatzeko beharra dagoelako", adierazi du Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuak.

Sentsibilizazio-ekintzak

Sentsibilizazio-ekintzak nerabe eta gazteentzat zein biztanleria osoarentzat izango dira. Bestek beste, gazteentzako genero-indarkeriaren aurkako kanpaina espezifikoak egingo da; ikastetxeetan ere ekimenak burutuko dira eta sare sozialak erabiliko dira indarkeria matxista errotik kentzeko mezuak eta edukiak zabaltzeko.

Halaber, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuarekin batera elkarlanean, ikus-entzunezko edukia, informazioa eta berdintasunari eta genero-indarkeriari buruzko edukien webgunea sortuko da. Gainera, publikoak gazteak izango dituen ekitaldietan, adibidez, kontzertu eta jaialdietan, jokabide sexistez jabetzeko mezuak zabalduko dira. Zibererasoa edo sexting (telefono mugikor edo bestelako gailuen bidez eduki erotikoa bidaltzea) delako jarrerak ere ekintzetan kontuan hartuko diren gaiak izango dira, nerabeen artean geroz eta hedatuago baitaude.

Prestakuntza

Prestakuntzari dagokionez, nerabeei zuzenduriko programa bat aurreikusi da gizonen eta emakumeen rolei buruzko ikuspegi positiboa eraiki dezaten. Genero-indarkeriaren biktima gazteei edo genero-indarkeria inguruan duten gazteei ere eskainiko zaie prestakuntza. Erasotzaile gazteek ere berriz hezteko plan espezifikoak izango dute.

Halaber, honako hauek sustatuko dira: emakumeen aurkako indarkeriari buruz hausnarketa egiten programa bat justiziako eta beste alor batzuetako profesionalentzat, afektibitatearen heziketa-proiektu bat eta jokabide matxistak antzematen dituzten emakume gazteentzako beste proiektu espezifikoago bat.

Alor horretako beste ekimen batzuk ikastetxeetako orientazio-taldeentzat, gazteriaren alorreko eta gazteentzako informazioguneetako profesionalentzat, gizarte-zerbitzuentzat eta guraso-elkarteentzat izango dira.

Azkenik, Hezkuntza Departamentuarekin koordinatuta, etapa akademiko guztietan berdintasunari buruzko edukiak ezartzeko ekintza-plan bat diseinatuko da. Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuak zein departamentu honek ezinbestekotzat jotzen dute txikitatik berdintasunean hezteko genero-indarkeria saihesteko benetako bitartekoa delako.

Berdintasuna eta genero-indarkeria gazteen artean

Nafarroako gazteen artean egindako [diagnostikoak](#) agerian jarri zuen gazteetan berriro agertu direla estereotipo matxistak. Diagnostiko hori erabili da [Gazteriaren Foru Estrategia](#) eta [2013-2015 denboraldirako lehen Gazteriaren Plan Integrala](#) prestatzeko. 2010ean egindako estatuko azterlan baten arabera, elkarrizketatutako biztanle gazteen % 80k uste du neskek mutilari atsegina egin behar diola, % 40k pentsatzen du mutilak neska babesteko betebeharra duela, eta % 60k dio jelskortasuna "normala" dela harremanetan. Gainera, inkesta egin duten nerabeen ehuneko batek uste du emakumea hobeto sentitzen dela mutil-laguna duenean.

Bestalde, Espainiako gazteriari buruzko azken azterlanak (2012. urtekoa) adierazten du ia gazteen laurdenak uste duela emakumea dela etxean geratu behar dena etxea eta, behar izanez gero, adingabeak zaintzen.

Genero-indarkeriari dagokionez, 30 urtetik beherako 15 emakume erahil ziren Espainian iaz, bikotekideak edo bikotekide ohiak hilda. 2012an, estatuan, indarkeria matxistagatik hildako emakume guztien % 28,8 da kopuru hori. Halaber, 2011ko datuekin alderatuta, adingabeek burututako genero-indarkeriaren delituek % 33 egin dute gora estatuan.

Nafarroan, urtetik urtera handitu egiten da genero-indarkeriaren biktima izan diren gazteen salaketen kopurua. Hala, 2011n 14 eta 30 urte arteko emakumeek aurkeztutako salaketak guztien % 34 izan ziren, eta 2012an % 37.